



EUSKARAKO MAILA PROBA

PRUEBA DE NIVEL DE EUSKERA

# Oinarrizko maila - Nivel básico

## Oharrak:

- Sarrera edo Maila probaren atal honek, norberak zuzendu ondoren, EAEko HEOetako Oinarrizko Mailetan (A1, A2) edo Tarteko Mailako lehen urtean (B1.1) matrikulatzeko aukera emango dio ikasle-gaiari. Autozuzenketa egiteko, erabili probaren bukaeran datorren erantzun-orria.
- Proba honetan hiru atal edo zati dituzu: Irakurriaren ulermena, Entzunaren ulermena eta Hizkuntza Baliabideen Ezagutza erakusteko testa.
- Sarrera probaren atal hau gutxi gorabehera eskolako *Oinarrizko Mailako (A2)* azterketarekin bat dator.
- Eta ikasle-gaiak emaitzen arabera hiru multzotan sailkatuko lirateke:
  1. Probaren %35 baino gutxiago lortuko lukeena *Oinarrizko Maila 1eko* taldeetara lihoake (A1).
  2. Probaren %35-%70 bitartean lortuko lukeena *Oinarrizko Maila 2ko* taldeetara joango litzateke (A2).
  3. Probaren %70 baino gehiago lortuko lukeenak *Tarteko Maila 1eko* (B1.1) taldeetan matrikulatu beharko luke .

## Notas:

- Esta parte de la prueba de autoevaluación, tras la autocorrección, posibilita al alumnado nuevo el acceso a los Niveles Básicos (A1, A2) o al primer curso del Nivel Intermedio (B1.1) de las EOI de la CAV. Para la autocorrección, utilícese la hoja de respuestas que aparece al final de la prueba.
- La prueba consta de tres partes: Comprensión Lectora, Comprensión Auditiva y un test de Competencia Lingüística.
- Esta parte de la prueba de acceso equivale poco más o menos al examen final del Nivel Básico (A2).
- Y los nuevos alumnos, según el resultado obtenido, se clasificarían así:
  1. El que obtuviera una puntuación inferior al 35% de la prueba, debería matricularse en el primer curso del Nivel Básico (A1).
  2. Aquel que obtuviera una puntuación entre el 35% y el 70% del total de la prueba, debería cursar el segundo curso del Nivel Básico (A2).
  3. El alumno que superara el 70%, se matricularía en el primer curso del Nivel Intermedio (B1.1).

## Agirien arteko kidezkak:

*Equivalencias entre certificados:*

Hizkuntza Eskola Ofizialak	Europako Erreferentzi Markoa	Osakidetza eta IVAP-HAEE	Euskaltegiak
<b>Oinarrizko Maila 1</b>	A1		
<b>Oinarrizko Maila 2</b>	A2		
<b>Tarteko Maila 1</b>	B1(.1)		
<b>Tarteko Maila 2</b>	B1(.2)	1HE	1. maila
<b>Maila Aurreratua – B2</b>	B2	2HE	2. maila
<b>Gaitasun Maila – C1</b>	C1	3HE	3. maila EGA



## A. ATALA: IRAKURRIAREN ULERMENA / *Comprensión lectora*

Testuetako hutsuneak bete. Horretarako hutsune bakoitzerako 3 hitzetatik zuzena aukeratu eta ipini aukera zuzena beheko taulatxoko zenbakiaren ondoan. 0. adibidea da (8 puntu)

### 1. testua: Erronkariko gazta

Nafarroako Pirinioetara heldu gara. Bertan, Anso eta Zaraitzu .....0..... artean, herri eder bat dago: Erronkari.

Mendiz, pinuz eta pagoz .....1..... dago XI. mendeko herri hau. Bertan ikusi ahal dira Done Eztebe eliza, San Martin monasterioa eta Sanz Omoko jauregiak, besteak beste. Erronkari garrantzitsua da historiaren eta artearen aldetik, baina .....2....., badu produktu gozo eta ospetsu bat ere: Erronkariko gazta.

Inguru hauetan ardi latxak ugari dira eta ardi horien esnearekin azal gorriko gazta egiten dute.

Kilo bat gazta egiteko, 5 litro esne eta hilabete bat eta erdi behar dira. Prozesua artisau-lana da, eta .....3..... belardiek, temperaturak eta hezetasunak<sup>1</sup> ematen diote .....4..... berezko gustua eta usain goxoa. Horregatik eman diote labela gazta horri.

0.	1.	2.	3.	4.
a) uharteen	a) hizketan	a) horregatik	a) bertako	a) Erronkariri
<b>b) haranen</b>	b) inguratuta	b) horrela	b) iazko	b) gaztari
c) biztanleen	c) egina	c) horrez gain	c) inongo	c) ardi latxari

0.	1.	2.	3.	4.
<b>b)</b>				

### 2. testua: Izaro uhartea<sup>2</sup>

Izaro uhartea Bizkaian dago, Bermeo eta Mundaka artean. .....0....., bi herri horiek haserrealdi eta eztabaida biziak izan zituzten uhartearen jabegoarengatik<sup>3</sup>. Arazo horren .....5..... oso istorio polita dago.

Luzaro eztabaidatu ondoren, bermeotarrek eta mundakarrek arazoa modu .....6..... konpontzea erabaki zuten: bi herriek estropada bat egingo zuten eta herri irabazleak .....7..... hartuko zuen Izaro. Halaxe egin zuten eta Bermeok irabazi zuen estropada.

Orain, Madalena egunean jai polit bat .....8..... da. Bi herrietako txalupak Izaro aldera joaten dira eta bermeotarrek teila bat botatzen dute itsasora, beren jabegoa gogoratzeko. Gero, bermeotarrek eta mundakarrek elkarrekin ospatzen dute jaiak.

0.	5.	6.	7.	8.
a) Bart	a) bezala	a) osasuntsuan	a) berarekin	a) gonbidatzen
b) Etzi	b) ustez	b) baketsuan	b) berari	b) ospatzen
<b>c) Antzina</b>	c) inguruan	c) behartsuan	c) beretzat	c) agertzen

0.	5.	6.	7.	8.
<b>c)</b>				

<sup>1</sup> Hezetasunak: humedadeak

<sup>2</sup> Uhartea = irla

<sup>3</sup> Jabegoa: propietad





20. Gehien gustatzen zaidan ..... udaberria da, zelaiak lorez betetzen direlako.

a) urtaroa	b) mendea	c) hilabetea
------------	-----------	--------------

**(OHARRA: 21-23 itemek elkarrizketatxo bat osatzen dute)**

21. Beñat: - *Egun on, ea Bilborako trena .....jakin nahi dut, mesedez.*

a) atera dela	b) atera bada	c) atera den
---------------	---------------	--------------

22. Txartel-saltzailea: - *Ez, oraindik ez. .... zabilta.*

a) Goizean	b) Garaiz	c) Kontuz
------------	-----------	-----------

23. Ander: - *Emango didazu, mesedez, txartel bat?*

Txartel-saltzailea: - *Joaneko txartela ala joan-etorrikoa?*

<b>JOANEKOA: 1 euro</b> <b>JOAN-ETORRIKOA: 1,75 euro</b>
---

- a) Joan-etorriko txartela joanekoa bezain garestia da.
- b) Joan-etorrikoa garestiegia da.
- c) Joanekoa merkeagoa da.

24. Parkean patinekin ..... mutikoa nire semearen gelakoa da.

a) dauzkan	b) dabilen	c) dabiltzan
------------	------------	--------------

25. Bezeroa: - *Aizu, aterako dizkiguzu bi botilatxo ur eta hiru garagardo?*

Tabernaria: - *Bai, berehala .....*

a) aterako dizkizugu	b) aterako dizkizuet	c) aterako dizuet
----------------------	----------------------	-------------------

26. Errepide hau oso arriskutsua da; ....., kontuz gida ezazu, istripurik ez izateko.

a) beraz	b) hala ere	c) bestela
----------	-------------	------------

27. Gaur goizean erosi dudak ..... oso artikulu interesgarriak dauzka.

a) aldizkaria	b) aldizkariak	c) aldizkarian
---------------	----------------	----------------

28. Baserri hark su hartu zuenean, suhiltzaileei deitu ondoren, etxeakoak ordu erdiz egon ziren atarian .....

a) suhiltzaileen zain	b) suhiltzaileei buruz	c) suhiltzaileen bila
-----------------------	------------------------	-----------------------

29. Kanpoko zaratarekin ezin naiz ..... nire lanean. Leihoa itxi beharko dut.

a) kontzentratzen	b) kontzentratzeko	c) kontzentratu
-------------------	--------------------	-----------------

30. Aitor: - *Datorren igandean euririk ....., Aizkorri mendira igoko gara.*

- |                   |                 |                   |
|-------------------|-----------------|-------------------|
| a) egingo ez badu | b) egin ez badu | c) egiten ez badu |
|-------------------|-----------------|-------------------|

31. Mikel: - *Ea ba, eguraldi ona egiten duen. Eguraldi-iragarpenak dio larunbatean euria egingo duela eta igandean Gipuzkoan .....*



- |                                   |
|-----------------------------------|
| a) zerua lainotuta egongo dela    |
| b) euri-zaparradak izango direla  |
| c) tenperaturak gora egingo duela |

32. Nik ile asko dut gorputzean eta aurpegian; gizon-otsoa bezain iletsua naiz. Horregatik, egun osoan jendeak .....

- |                    |                      |              |
|--------------------|----------------------|--------------|
| a) bost axola zait | b) adarra jotzen dit | c) ados nago |
|--------------------|----------------------|--------------|

33. Nork utzi dizkio Kepari literaturako apunteak?

- |   |
|---|
| a) Ikaskide batek literaturako apunteak utzi dizkio Kepari. |
| b) Ikaskide batek literaturako apunteak Kepari utzi dizkio. |
| c) Ikaskide batek utzi dizkio Kepari literaturako apunteak. |

34. Ixabel: - *Oso neska isila zara, Miren.*

Miren: - *Isila naizela? Ja, ja, ja. Uste dut ez nauzula ongi ezagutzen.*

Ixabel: - *Bai, Miren, nik oso ongi ezagutzen .....*

- |              |               |               |
|--------------|---------------|---------------|
| a) zaitut zu | b) dizut zuri | c) zaizu zuri |
|--------------|---------------|---------------|

35. Mañolik osasun-zentrotik irten denean, Iñaxirekin topo egin du.

Iñaxi: - *Zer moduz zaude, Mañoli? Pasa al zaizu katarroa?*

Mañoli: - *Beno, oraindik ez, baina gaur atzo baino ..... nago.*

- |                |          |                    |
|----------------|----------|--------------------|
| a) ondo / ongi | b) hobea | c) hobeto / hobeki |
|----------------|----------|--------------------|

**Erantzunak: C. ATALA: HIZKUNTZ BALIABIDEEN EZAGUERA / Competencia lingüística**

15.		16.		17.		18.		19.		20.		21.	
22.		23.		24.		25.		26.		27.		28.	
29.		30.		31.		32.		33.		34.		35.	



EUSKARAKO MAILA PROBA  
OINARRIZKO MAILA (A2)

PRUEBA DE NIVEL DE EUSKERA  
NIVEL BÁSICO (A2)

## Erantzun zuzenak

### A. ATALA: IRAKURRIAREN ULERMENA / Comprensión lectora (8 PUNTU)

#### 1. testua: Erronkariko gazta. (4 puntu)

0.	1.	2.	3.	4.
b)	b	c	a	b

#### 2. testua: Izaro uhartea. (4 puntu)

0.	5.	6.	7.	8.
c)	c	b	c	b

### B. ATALA: ENTZUNAREN ULERMENA / Comprensión auditiva (6 PUNTU)

#### 1. entzungaia: Kukua. (3 puntu)

	0.	9.	10.	11.
E. / G.	E	G	G	E

#### 2. entzungaia: Fenizia berria. (3 puntu)

	0.	12.	13.	14.
E. / G.	G	G	G	E

### C. ATALA: HIZKUNTZ BALIABIDEEN EZAGUERA / Competencia lingüística (21 PUNTU)

15.	b	16.	a	17.	c	18.	c	19.	c	20.	a	21.	c
22.	b	23.	c	24.	b	25.	b	26.	a	27.	b	28.	a
29.	c	30.	c	31.	a	32.	b	33.	c	34.	a	35.	c

## Zer matrikula egingo dut ?

Atalak / Secciones	Puntuazioa Puntuación	Ehunekoak eta Maila Porcentaje y Nivel
A) Irakurriaren ulermena Comprensión lectora	8	<35 (12 puntu edo gutxiago): <b>Oinarrizko maila 1</b> %35-70 (13-24 puntu): <b>Oinarrizko maila 2</b> %70 > (25 puntu edo gehiago): <b>Tarteko maila 1</b>
B) Entzunaren ulermena Comprensión auditiva	6	
C) Hizkuntza baliabideen ezaguera testa	21	